

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!

ASTIGARRAGA

Animalien babes eske /4



2019ko urtarrilaren 5a, larunbata ::: 6.620 zk. ::: www.kronika.eus :::

■ BURUNTZALDEA

2018an 68 langileren heriotza salatu du LABek

Urtebete lan istripuan hildako langileen kopurua «%22 igo» izana salatu du, eta istripuak «halabeharrezkoak ez» direla dio; «politika konkretu bat dago heriotzen atzean».

URTE berria hastearekin batera, 2018ko balantzea egin du LAB sindikatuak, eta 2018 urtea «beltza» izan dela salatu du. Era berean, kezka azaldu du, krisi betean behera egin bazuen ere, ordutik hona berriro ere lan istripuan hildakoen kopuruak gora egin duelako. «Politika konkretu bat dago heriotzen artean» sindikatuaren esanetan, eta «iraultza» beharra agertu du, egoerari buelta emateko. /3

■ HERNANI

Eguberri Txapelketari bukaera, pelotariak

Goizean zehar jokatu da, kiroldegiko frontoian, Eguberri Txapelketako finala. Denboraldiko argazki ofiziala ere aterako da 11:00etan, eta sariak ere izango dira, zozketan. /2

Jubilatu eta pentsionistek zita, astelehenero

Urte berria hasi den honetan, jubilatuta eta pentsionistek gogorazi dute etzitik aurrera astelehenero bilduko direla berriro, 12:00etan Plazan, pentsio duinak eskatzen segitzeko. /11

■ GOIZUETA

Mendizabal eta Apeztexea, garaile

Umore Ona elkarteak antolatutako mus txapelketan Juan Apeztexea eta Aitor Mendizabal izan ziren garaile. Antolatzaileak pozik agertu dira parte-hartzaile kopurua altua izan delako, hemaniar eta ereñotzuarrak tartean. /6

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-3

Futbola, igeriketa, Pasaportes para Siria, laburrak...

Astigarraga /5

Bizikleta parkea, futbola.

Urumea /6-7

EHko mus txapelketa Ereñotzun, tailerrak Aranon, Nazioarteko Jaialdia...

Putzuzarko trikuharria /8



Erregeei harrera, musikak

Trakatan-trakatan, Hernani eta Goizuetara bidean dira Errege Magoak. Musika emanaldiek ireki diete bidea; Go!azen emanaldiak, atzo, Hernanin.

Zorionak Aratz Labaka Etxeberria!

9urte

+60 URTE	FUERTEVENTURA Urtarrilean Bilbotik hegaldia 7 gau 3* apartamentuan, DENA BARNE	495 €	Club Marco Polo ASTE SANTUAN BIDAIAK TALDEAN Guatemala, Senegal, Vietnam, Chipre, Botswana, India, ...
	LANZAROTE Urtarrilean Bilbotik hegaldia 7 gau 4* hotelean, pentsio erdian	430 €	
ZUBIAK	CABO VERDE Otsailean Bilbotik hegaldia 7 gau 3* hotelean, gosaria barne	909 €	YUCATAN-RIVIERA MAYA Maiatzean Madrilik hegaldia Hegaldia+autoa: gaueko zirkuitua gosaria barne + 4 gau hondartzan DENA BARNE
	LA HABANA Otsailean Madrilik hegaldia 7 gau 3* hotelean, gosaria barne	909 €	FORMENTERA Ekainean Bilbotik hegaldia Ferria + 7 gau apartamentuan
ZUBIAK	BUDAPEST Martxoaren 15ean Santanderretik hegaldia 3 gau 4* hotelean, gosaria barne	226 €	ATENAS-ANTORINI Ekainean Bilbotik hegaldia 2 gau Atenas + 5 gau Santorini, 3* hotelean, gosaria barne
	VENECIA Martxoaren 15ean Bilbotik hegaldia 3 gau 4* hotelean, gosaria barne	310 €	GRANADA
ANDALUCIA: Sevilla-Cordoba-Granada	Martxoan Bilbotik hegaldia 8 eguneko bidaia 3* hotelean, pentsio erdia + bixitak barne	697 €	
	MENORCA Maiatzean Bilbotik hegaldia 7 gau 4* apartamentuan, pentsio erdian	359 €	

www.bidaibila.eus

TALDEENTZAKO AUKERA BEREZIAK

HERNANI BIDAIAK
Lubeta, 6
943 33 00 49

JARRAITU:

■ ERREGE KABALGATA

Badatoz Errege Magoak Hernanira, Urbietatik

Karobi Elkartetik hasiko da kabalgata 18:00etan eta Urbietatik igaro ondoren Izpizuan barrena igoko dira. Elkano kaletik Plazara sartu, eta Andrekaletik jaitsi eta Kale Nagusitik igoko dira berriz ere, Plazara.

ERREGE Magoak Hernanira iristear dira Ekialde Urrunetik bidaiatu luzea egin ondoren. Gaur arratsaldeko 18:00etan izango dira herrian, opariz gainezka. Urbietatik abiatuko da Erregeen kabalgata, Marielutsetik, Karobi elkar-tearen ondorekin, herria barrena ibiltzeko, Musika Bandaren eta txistularien laguntzaz. Noski, pajeak ere alboan edukiko dituzte eta goxokiak banatuko dira ibilbide guztian zehar.

Urbietatik igaro eta gero Izpizua kaletik igoko dira. Segidan, ezkerretara egingo dute, Elkanotik Plazara sartzeko.

Andrekaletik Zinkoenara jaitsi, eta Kale Nagusitik bueltatuko dira Plazara.

Haurren gutunak jasoko dituzte udaletxeko arkupetan Udaletxeko arkupeetan, haurren gutunak jasoko dituzte, eta oparitxo bana ere emango diete. Aurretik, Sandiusterrin ere izango dira Errege Magoak, opariak banatzen, 15:30etatik 17:15ak bitarte.

Oinetakoak ondo garbituta edukitzea komeni da gaur gauerako Meltxor, Gaspar eta Baltasar etortzen direnerako eta jatekoa ere utzi mesedez. ■



Arkupetan umeen eskakizunak entzuteko prest egongo dira behin kabalgata amaitu eta gero

■ CD HERNANI ESKU PELOTA

Eguberri txapelketari bukaera gaur, frontoian

Bihar, berriz, Altzako finala jokatu dute Ojuel eta Arrietak, elkarren kontra.

PELOTARI hernaniarrek bederatzigarren jokatu dituzte asteburu honetan, bost txapelketa ofizial eta pribatutan.

Horietako bat da Hernaniko 16 benjamin, beste 16 alebin eta Buruntzaldeako 8 senior jokatu ari diren Hernaniko Eguberri Txapelketa.

Finalak, argazkia eta sarien zozketak, frontoian

Eguberri Txapelketako azken jardunaldi honi 10:00etan emango zaio hasiera kiroldegiko frontoian. Aurrena, benjamin eta alebin mailetakoko finalerdiak jokatu dira, eta 11:00etan, pelota eskolako pe-

lotari guztiek denboraldiko argazki ofiziala egingo dute.

Gero, 11:30etan benjamin eta alebinetako 3 eta 4 postuak eta finala jokatu dira.

Bukatzeko, 12:30etan seniorretako finala jokatu da: Altuna-Insausti/Salaberria-Arizmendi. Sariak banatuta, zozketak ere izango dira.

Altzako finalak, bihar

Altzako Torneoako finala, berriz, bihar jokatu da, 12:00etan. Paul Ojuel hernaniarra, Asteasuko Urruzolarekin, Ioritz Arrieta hernaniarra eta Astigarragako Santxezen aurka ariko da. ■

■ CD HERNANI FUTBOLA

Bi partidu, Zubipen

Euskal Ligak eta Jubenilen Nazional mailak jokatu dute gaur, etxean.

FUTBOL elkarteko bi taldek gaur ekingo diote lanari, eta Zubipen ariko dira biak.

Aurrena, mutilen Jubenilen Nazional mailako taldea ariko da, 12:00etan, Durangoren aurka; 8 postu behirago dago aurkaria, eta aukera polita izan liteke urtea ondo hasteko.

Gero, emakumezkoen Euskal Ligak jokatu du, 16:00etan Oiartzunen aurka. Puntu bakarreko aldea dago bi taldeen artean. ■

■ KIROLDEGIA

Igerilekua itxita, arratsaldean

Waterpolo partidua jokatu dela-eta, itxita egongo da gaur igerilekua, 13:00etatik 15:00etarako tartean. ■

■ SAN JOAN KONPARTSA

7.181 izan da zenbaki saritua

San Joan Konpartsaren errifa saritua 7.181 zenbakia izan da. Abenduaren 21eko itxuraren zozketan atera zen zenbakia da tokatu dena. Hilabeteko epea dago saria jasotzeko Talasoterapia eta bazkaria bi lagunentzako. ■

■ MENDIRIZ MENDI

Eski ikastaroari buruz bilera, ostegunean

Urtarrilaren 12 eta 13an iraupen eskiko eta eski alpinoko ikastaroa antolatu du Mendiriz Mendik, eta honen inguruko informazioa emateko bilera deitu du urtarrilaren 10ean, 20:00etan bulegoan. Bertan azalduko dira nola eman izena, eta gainerako xehetasunak. ■

■ TXANTXANGORRI

Mus txapelketetarako, izenematea

Txantxangorri elkarteak binakako eta banakako mus txapelketak antolatu ditu berriz. Urtarrilaren 29an hasiko dira, eta urtarrilaren 25era arte eman daiteke izena bietan, elkartearen. ■



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...




Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

LAB SINDIKATUA

2018a «beltza», Euskal Herriko langileentzat

Euskal Herrian 68 langile hil direla salatu du Buruntzaldeako LABek; «%22 gehiago».

BURUNTZALDEAKO LAB sindikatuak prentsa oharra osatu du, 2018an Euskal Herrian gertatu diren lan istripuak salatuz. «Amaitu berri den urtea beltza» izan dela salatu du, «Euskal Herrian 68 langile hil» direlako 2018an, eta kezka azaldu du, «urte betean %22 igo» delako kopurua.

«Lan istripuak ez dira halabeharrezkoak»

Pasatako urtea errepasatuta, LABek azaldu du «2018ko egunik beltzena otsailaren lehen» izan zela, lau hildakorekin: «Bizkaibuseko gidari bat eta kamioilari bat zendu ziren Galdakaon, bi ibilgailuek aurrez aurre elkar jota, eta Loium, furgoneta batean hilik topatu zituzten bi langile».

Sindikatuak azaldu du «Euskal Herrian 5 egunetik behin ama bat, seme bat, lagun bat etxetik lanera irteten dela hirugarren baten helburu ekonomikoak asetzera, eta ez da inoiz gehiago etxera bueltatzen». Eta gaineratu du hauek «erailketak» direla, eta «ez heriotzak. Istripuak ez dira halabeharrezkoak, lan baldintza eta eredu produktiboaren ondoriozkoak dira, langileen osa-

sunaren gainetaik irabazi asmoa nagusitzen baita. Lan erreformak, lan baldintzen gainbehera, gehiegizko lan eritmoak, lanaldi partzialak, segurtasun neurri falta... Guzti hori dago ezbeharren atzean. Politika konkretu bat dago heriotzen atzean. Lan istripuak prekarietate egoeraren ondorio dira eta errudun argiak ditu: enpresa kapitalistak eta hauen mesedetan egiten den politika neoliberalak gauzatzen duten alderdi zentralistak eta Euskal Herrian politika basati honi babes guztia ematen dion EAJ-PNV alderdia».

«Kopuruak, gora»

Kezka ere agertu du LABek, lan heriotza kopuruak gora egin duelako. «2011n, 81 langile hil ziren Euskal Herrian, eta 2014an, krisi betean, 39ra jaitsi zen kopurua. Baina ordutik urtetik urtera datuak gora doaz berrit: 2017an 54 hildako eta 2018an 68 izan dira, %22 igo da kopurua urte betean».

Egoera hau «jasanezina» dela dio, eta «honen aurrean patronala eta EAJ-PNV susperraldi ekonomikoaz» hizketan aritzea kritikatu du. Guztiari aurre egiteko «iraultza» aldarrikatu du. ||

ZOZKETA DORRONSORO OKINDEGIA



Sonia Zapiain, Joxe Dorronsorok jarritako saskia jasotzen.

Joxe Leon eta Sonia Zapiain, irabazle

Urtero bezala, bezeroen artean bi saski zozketatu zituen Dorronsoro okindegak fidelotasuna eskertzeko. Santo Tomas egunean egin zen zozketa eta irabazleak Joxe Leon (Lizeagako dendan) eta Sonia Zapiain (Akarregin) izan dira. ||

IGERIKETA

Hernani Sarian Beñat Bidaola eta Eneka Muñagorri garaile

Marka onak egin ziren orokorrean eta Enaitz Goñik bigarren postua lortu zuen.

TOLOSALDEA igeri elkarteko Beñat Bidaola eta Eneka Muñagorri izan ziren garaile Hernaniko Igeriketa Sari Nagusian. Igerilari bakoitzak bi proba egin zituen eta FINA puntuaren arabera egin zen sailkapena. Puntu gehien nesketan Muñagorrik lortu zituen 1091 batuz eta mutiletan Bidaolak 909 batu zituen.

Aipatzekoa da Fortuna taldeko Enaitz Goñi hernaniarrak lortutako emaitza 14 urte egin berritan. 849rekin puntu gehien bildu zituen bigarren igerilaria izan zen. Gainera 100 bizkarren



Enaitz Goñik marka bikainak egin zituen 100 bizkar eta 100 libre frogetan.

1:04:69 denborarekin Espainiako minimatik segundo eskasera geratu zen.

Hernani taldeko igerilariak ere aritu ziren eta denek beraien denborak hobetzea lortu

zuten. Orokorrean txapelketak marka onak izan zituen eta maila polita ikusi zen igerilekuan. Taldeka Tolosaldeak irabazi zuen, baita errelebotan ere. ||

PASAPORTES PARA SIRIA HAUR PARKEA



Hurbildu ziren gazteek ederki pasa zuten hesiak gaindituz.

2.487 euro bildu eta Adarragako tarta erregalatu

Pasaportes para Siria elkarteak antolatuta, PIN solidarioa jarri zuten frontoian, pasa den larunbatean eta bildu ziren 2.487,60 euroak Lesbosen haur errefuxiatuentzako izango dira. Antolatzaileek eskerrak eman nahi izan dizkiete Udalari, hurbildu ziren 500 haur eta helduei, 29 boluntarioei, Kabiari eta Kide kafetegari sarrerak saltzen laguntzeagatik eta Denontzat gimnasioari ere bai materiala jartzeagatik. Era berean, jakinarazi dute Adarragako oparitutako tartaren irabazleak 287 zenbakia izan dela eta saria jasotzeko, 640 110 737 telefonora deitu behar duela. ||

Hernaniko haurreskola

Izen-emate epea zabalik

URTARRILAREN 7tik 11ra

Sagastialdeberri 2
943 55 29 91

Gabonetan, oparia Euskaltelen esku!

SOILK

29'9€ / hil 6 hilabetez

Zatuz Euskaltelera

60 MEGA	10GB DE MUGAGABEK
PREMIUM TBa	FINKOA DE MUGAGABEK

Fitness jardueraren kontrola duen smartwatch hau ZURETZAT OPARI

euskaltel

■ PLATAFORMA A+

«Eskatzen dugu animalien babeserako araudiaren hobekuntza erreal eta eraginkorra»

Plataforma A+ elkarteko hainbat kide astigartarrek 400 sinaduratik gora bildu dituzte, udaletxeari eskatzeko animalien babeserako araudia hobetzeko.

«INOLAKO alderdi politikorekin loturarik gabeko» hainbat astigartar biltzen dira Plataforma A+ elkartean, eta «modu informalean 400 sinaduratik gora» bildu dituztela jakinarazi dute, udaletxeari eskatzeko animalien babeserako araudia hobetzeko; «1.000 txakur inguru dago egun erroldatuta».

Abenduaren 14an egin zuten bilketa, «bizilagun, taberna eta komertzioetako elkarlanari esker», eta egun horretan bertan, Joseba Barandiaran plazan bildu eta 25 txakur inguruk lagunduta udaletxera gerturatu ziren, sindaurak alkateari eta udaltzain buruari eramatera; «biak bertan egotea eskertzen dugu, lan ordutegitik

kanpo sinadurak biltzeagatik», azaldu dute.

Proposamenen zain

Ekintza honekin «egungo egoera onartezina ikusarazi» nahi izan dute, eta era berean, «beste kolektibo batzuekin bat» egin dute, «udaletxeari eskatzeko, dagoena dagoela, eta alderdi guztiak arduradun eginez, animalien babeserako araudiaren hobekuntza erreal eta eraginkorra».

Era berean, gogorarazi nahi izan dute badirela «gai soziale-tan premiazko beharrak, oso premiazkoak, bizilagun gehienon ustez, animalistak izan edo ez, garrantzitsuagoak direnak. Horregatik, eskatzen dugu



Animalien ordenantzen berri eman du orain gutxi Udalak; gogorarazi du badirela txakur parkeak herrian.

jarrera profesional eta serioa, liskarretatik aldentzea; ideiak eta hobekuntza proposamenak egingo ditugu, baina era berean, zuen proposamenak espero ditugu, ahal dela, idatziak eta lotesleak».

Apirilean, festa

Egindako eskaera horien berri emateaz gain, taldeak jakinarazi du apirilaren 27 eta 28an jaialdi animalista antolatzeak direla Astigarragan, eta parte hartzera animatu dituzte

herritar guztiak, «animalien babeserako gaien inguruan hezi eta kontzientzia sortzeko».

Interesa duen edonor jarri daiteke harremanetan taldearekin: p.animalista.astigarraga@gmail.com. ■

■ UDALA BIZIKLETA PARKEA

Urumea Berrin jarriko da bizikleta parkea

Proposamen bozkatuena izan da aurrekontu partehartzaileetan. 1.000m² izango ditu.

URUMEA Berriren atzealdean, frontoia eta kirol kantxen ondoan jarriko da bizikletentzako 1.000m² izango dituen parkea. Hala jakinarazi du Udalak.

Hasiera batean ibai parkean kokatzea aurreikusitako zen, baina «Ura Euskal Agentziarekin hitz egin ondoren, ez dirudi toki egokiena. Ibai parkea uholde eremu gisa katalogatuta dago, eta horregatik, metro bakarrek altuerako oztopo naturalak bakarrik eraiki ahal izango lirakeke».

Hasiberrientzako parkea

Azkenean, Urumea Berri auzoa eta Bidebitarte poligonoaren arteko frontoi eta kirol kantxen ondoan jarriko da 1.000 metro karratuko bizikletentzako parkea, eta hainbat gune izango ditu.

Bizikletentzako ez ezik, patin edota monopatinetarako guneak ere izango ditu, eta asfalto izango du, horrela, «euria egiten badu ere segurua izaten jarraitu dezan».

Parkea egokia izango da bi urtetik aurrerako umeentzat, eta bereziki, hasiberriei zuzendutakoa izango da. Gobernu taldeak jakinarazi du aztertu egingo duela «aurrerago beste ezagarrak batzuetako bizikleta parkea eraikitzeak aukerarik legokeen, behin parke honen erabilerak eta eskaera neurtuta».

Proposamen bozkatuena

Udalak gogorarazi du bizikleta parkea 2018ko aurrekontu partehartzaileetan «proposamen bozkatuena» izan zela. «Astigarragan gero eta kirol eta aisialdi aukera gehiago dago». ■

■ MUNDARRO FUTBOLA

Markel Goñi eta Peru Ruiz, Euskadiko Futbol Selekzioarekin

Estatu mailako txapelketako aurreneko fasean aritu dira jokatzen, Nafarroa eta Canariasen aurka.

18 urtez azpikoen estatu mailako txapelketako aurreneko fasea jokatu da abenduaren bukaeran, eta Euskadiko Selekzioarekin aritu dira Markel Goñi eta Peru Ruiz astigartarrak.

Arrigorriagan jokatu dira partiduak, abenduaren 27 eta 28an. Euskadik, Canariasen kontra jokatu zuen aurrena, eta 4-0 irabazi zuen; Ruizek bi gol sartu zituen. Hurrengo egunean Nafarroaren kontra, berriz, bana berdindu zuten. Horrela, sailkapenean aurrenekoa da Euskadi, 4 punturakin. ■



Markel Goñi eta Peru Ruiz, Euskadiko Selekzioarekin.



Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa

■ GOIZUETA EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA

Marka guztiak hautsi dira

21 bikotek parte hartu zuten Umore Onako Mus Txapelketan eta Juan Apezetxea eta Aitor Mendizabalek irabazi zuten.

GIRO ezinhobean eta inoiz baino bikote gehiagorekin eman zioten amaiera, Umore Onan urteari Mus Txapelketarekin. 21 bikotek hartu zuten parte, baita Ereñotzu eta Hernanitik joandakoak ere, eta 100 euroko sari nagusia eta oparia, Juan Apezetxea eta Aitor Mendizabalek eraman zuten. Bigarren saria, 50 euro eta oparia, Juan Miguel Apezetxea eta Alvaro Legarretak eman zuten. Oparitxoa irabazi zuten hirugarren sailkatu ziren Antonio Zubeldia eta Juan Eskudero eta laugarren sailkatu ziren Martin Huizi eta Joxe Mari Salaberriak. ■



Mus Txapelketan sariak irabazi zituzten bikoteak.

■ GOIZUETA ERREGE KABALGATA

Hiru Errege Magoak gaur, Goizuetan

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera ibiliko dira ekialdeko hiru aztiak, klean barrena.

MELTXOR, Gaspar eta Baltasar Errege Magoen etorrerak itxiko ditu, beste urte batez, Gabonak, baita Goizuetan ere. Horiei ongietorria egingen diete, opariak utzi aurretik, Guraso Elkarteak antolatuta. Kabalgata, 18:00etan hasiko da.

Egun berezia izaten da Errege bezpera txikientzat eta oso polita gainontzeko guztientzat ere. Herriko plazara hurbilduko dira betiko ohitura jarraituz eta kale nagusiak zeharkatu eta gero,

eguraldi ona bada behintzat plazara joko dute. Txarra eginez gero berriz, pilotalekuan izanen dira denontzat opariak banatzen.

Ohi bezala, emozioz beteriko kabalgata izango da eta Erregek agurtu egingo dituzte goizuetar guztiak. Hori bai, gogoan izan, aurretik oinartekoak etxean uztea eta leihoa irekita, ardo goxoa ondoan utziz seguruenik ere etxeetatik pasako baitira eta han ere zerbait izango da txikientzat! ■

■ GOIZUETA NAZIOARTEKO JAIALDIA



Hego Amerika eta Ertamerikako 12 emakumek beraien esperientzien berri eman zuten.



Honduras, Brasil eta Nicaraguako jakiak dastatzeko aukera izan zen.

Zaintzaileak zaintzeko jaialdia, goizuetar berrientzako

Nicaragua, Honduras eta Brasilgo 12 emakumek zaintza lanak egiten dituzte Goizuetan. Eskerrak eman zitzaizkien jaialdian.

NAZIOARTEKO Jaialdia antolatu zuen abenduaren 22rako Goizuetako Udalak, Kultur taldea eta Gizarte Zerbitzuekin batean, etxeetan zaintza lanetan aritzen diren emakume atzeritarrak omentzeko.

Jaialdiari hasiera emateko, Maite Perurena, Gizarte Zerbitzuetako gizarte langile eta integrazio sozialeko teknikariak gidatuta, hainbat testigantza entzuteko aukera izan zen. Hain zuzen, etxeetan helduak zaintzen lan egiten duten

Nicaragua eta Honduraseko 12 emakumeek beren esperientzia eta sentipenen berri eman zuten. Hitz xume eta goxoak egin zituzten, eta horrez gain, sorpresaren bat ere prestatu zuten: bildutako herritarren aurrean kantatu zuten Honduraseko lau emakumek beren herrialdeko ereserkia, eta Nicaraguako beste batek, bertako dantza tradizionala dantzatu zuen.

Horren ondoren, esker oneko hitzez gain, Udalak

«beraien lana errekonozitu» nahi izan zuen, eta oroigarri bana banatu zien, «kanpotik etorritako emakume hauek egiten duten zaintza lana baloratuz eta herrian ematen duten zerbitzua eskertu asmoz».

Jaialdia zapore onarekin bukatzeko, Honduras, Brasil eta Nicaraguako jaki eta edariak dastatzeko aukera izan zuten herritar guztiak, Hego Amerika eta Ertamerikako musikak lagunduta. ■



Honduras eta Nicaraguako doinu eta dantzak eman zituzten ezagutzera.

■ GOIZUETA UMORE ONA ESKU PILOTA TXAPELKETA

Finalak atzo erabaki ziren

Datorren astean jokatuko dira finalak lau maila desberdinetan eta Umore Onak izanen du ordezkaritza gutxienez kimuak mailan.

UMORE Ona pilota txapelketa-ko finalerdiak jokatu berri dira. Atzo arratsaldean jokatu ziren bost finalerdi eta pasa den abenduaren 28an lehendabiziko hiruren txanda izan zen.

Atzoko emaitzak oraindik jakiteke, Kronika atzo itxi zenean oraindik ere partiduak jokatzen ari ziren, Goizuetak izanen du ordazkaritza finalean. Kimu mailan, Xanet Apezetxeak, Epleko Etxeberriarekin, 18-9 gaitzitu zituzten Hernaniko Pascual eta Azpeitia, pasa den astean. Beraz, Apezetxea goi-

Xanet Apezetxea goizuetarra finalera sailkatu da kimuetan Epleko Etxeberriarekin bikote osatuz

zuetarra finalean egonen da datorren urtarrilaren 13an, igandean. Beste bi goizuetarrek, Legarreta eta Elizegik, atzo jokatu zuten beraien finalerdi Hernaniko Deskarga eta Alegriaren kontra, haurren

mailan. Haurren mailako bi finalerdiak jokatu ziren atzo.

Beste mailetan, umeetan Epleko Iturain eta Bergara finalean dira. Eta 22 urtez azpikoetan Andoaingo Etxezarreta eta Arratek Goizuetako Aizkorbe eta Apezetxea kanporatu zituzten finalera sailkatuz.

Azaroaren 30ean hasi zen txapelketa eta datorren igandean, urtarrilaren 13an, amaituko da lau finalekin. Maila ona eta partidu ederrak ikusi dira aurtengo pilota txapelketan. ■



Maisuenean egin zuten pasa den abenduaren 28an.

■ ARANO

Zazpi haur aritu ziren tailerrean

Aranoko Maisuenean 3-14 urte bitarteko haurrek tailerra egin zuten. Euskara Zerbitzuek antolatuta ederki pasa zuten apuntatu eta hurbildu ziren zazpi haurrek pasa den abenduaren 28an. ■



Irrintzin jokatu zen Ereñotzuko kanporaketa.

■ EREÑOTZU EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA

Egaña aita-semeak garaile kanporaketan

Joxan eta Hodei Egaña izan ziren, Irrintzi tabernan, Euskal Herriko XI. Mus Txapelketako aurreneko irabazleak Ereñotzuko kanporaketan. Egaña aita-semeak, kanporaketa gaitzitez gain Fagollaga jatetxean otordu bat ere lortu zuten. ■

■ GOIZUETA OSASUNA

Pediatra zerbitzua berriz martxan

Goizuetako osasun zentroan pediatra zerbitzua berriro martxan jarriko da asteazkenetik aurrera. Hitzordua nahi duenak osasun etxera deitu beharko du 948 510 800 telefono zenbakira. ■

■ EREÑOTZU GABON FESTA



Txirristran behera gustora ibili ziren gaztetxoak frontoian.

Famili giroan urteari agur esateko

Frontoian Gabon festa ospatu zuten ereñotzuar gazte eta helduek.

URTEA ezin hobeto bukatu zuten ereñotzuarrek. Familia giroan: gazte eta batez ere haur eta helduek Gabon Festarekin esango zioten agur 2018 urteari pasa den larunbatean, frontoian.

Jolas, talo eta guzti

Familiarteak, gaztetxoek eta helduek gozatzeko moduko festa izan zuten. Arratsaldean zehar mota guztietako jolasetan ibili ziren, oreka mantentzeko arrakasta izan zuten, baita taloak egiteko ikastaroak. Ondoren, horiek dastatu zituzten. ■



Oreka mantentzeko jokoak izan ziren arrakastatsuenak.

ZUBI-LANA

Lan bila dabilen herritarrak bertan mezu bat jarri nahi badu, astero jakinarazi beharko dio Kronikari; mezuan azaldu beharko du zein lan mota bilatzen duen edo zertarako eskaintzen duen bere burua. Aldiz, lana eskaintzen dutenek, iragarki merke gisa argitaratu beharko dute lan eskaintza; eta Kronikak, Zubi-Lana txokoan argitaratuko die, deialde.

Bi kasuetan, ostiral eguerdia baino lehen, iragarkiak lan@kronika.eus helbidera bidali behar dira edo 943 33 08 99 telefonora deituta azaldu. Gehienez 235 karaktere onartuko dira, hutsuneak barne.

ESKAINTZAK

Hernaniko okindegi batean lan egiteko dependent@ behar da. Ezinbestekoa euskaraz jakitea eta gidabaimena edukitzea. Deitu 609 543 900 (10:00etatik 14:00etara)

LAN-BILA

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: 11:30-17:00. Deitu: 654 122 548

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte Lan-taldea: A. Arbelaitz, I. Goñi, L. Goñi, B. Los Arcos, A. Moreno, J. Osa, M. Ramirez de Alda, L. Rekondo eta J. Zubitur. Egoitza: Larramendi 11 (Hernani) ☎ 943 33 08 99 - 688 660 714.
 Eposta: kronika@kronika.eus, astigarraga@kronika.eus, urumea@kronika.eus eta publi@kronika.eus. Lege gordailua: SS-1469-2018.

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)
DYA: 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
 / Egunez: **Tanco** URNIETA Idiazabal, 39 **943 550942** / Gaez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

EGURALDIA
GAUR Orokorrean, berriro ere eguzkia izango da nagusi zeruan, eta temperatura baxua. Iztotza botako du denean, eta kostaldean ere zeropetik ibili daiteke termometroa. **Min.0° / Max.9°**
BIHAR Behe-lainoren bat agertu daiteke, baina gainontzean, ez da aldaketarik espero. Hotza egingo du, eta izotza botako du egunaren hasieran eta bukaeran. **Min.0° / Max.8°** (euskaime)



EREÑOTZU PUTZUZARKO TRIKUHARRIA

«Hezurrik ez dela egongo badakigu, baina egon liteke material minerala»

K.a. 3.000 eta 4.000 urte artekoa da Putzuzarren aurkitutako trikuharria.

ARANZADI elkarteko Jesus Tapia arkeologo astigartarrak konfirmatu du: «Putzuzarko trikuharria badela ziurtatu dugu». Pasa den asteburuan izan ziren Ereñotzun, inguruan aurreneko garbiketa lanak egiten, eta laster jarriko duten hurrengo hitzorduan egituraren indusketari ekingo diote, ezaugarri zehatzagoen berri jasotzeko. Oraingoan, zehaztu dute k.a.3.000-4.000 urteen artekoa dela, eta kamera eta tumuluek osatutako egitura dela.

Maldan beheerako aurrenekoa Tapiak azaldutakoaren arabera, duela hiruzpalau urte izan zuen Aranzadi elkarteak trikuharri honen berri. «Saratxetako lepoan, Akolatik Landarbasora dijoan bidean megalito asko dago, gainaldean, baina maldan beheara ba ote zegoen ez zen jakina. Lontxo Ugarte, Aran-

«Akolako Joxe Susperregiri galdetuta erabaki dugu izena»

zadiko kideak badu afizioa eta asko ibiltzen da mendian. Berak ikusi zuen Putzuzarren bazela zerbait, eta abisua eman zion Manu Zeberio kideari. Hau gerturatu, eta baieztatu zuen trikuharria zela; sasi artean estalita bazegoen ere, ikusi zituen laja edo harlauza, ganbara osatuko lukeena, eta tumuluko hainbat harri».

Gipuzkoako Foru Aldundia jarri zuten gero jakinaren gainean. «Aurkitu zenetik denbora bat pasa da. Izan ere, inguruko megalitoak ikertzen ari gara. Txoritokietan ibili izan gara, eta ez genuen data jartzten Putzuzarko



Putzuzarko trikuharria agerian utzi zuten ereñotzuarrek aurreneko lan saioan; indusketa geratzen da orain.

zarko begiratzeko. Azkenean, antolatu, eta egin dugu saioa. Nahiz eta guk zalantzarik ez izan, Putzuzarko trikuharria badela ziurtatu dugu».

10 metroko diametroa Ezaugarri nabarmenak bistakoak baziren ere, inguruko sasi eta landareak garbituta, gehiago jakin dute. «Akola eta Igoian inguruetan badira gehiago eta ez daude denak datatuta, baina Iberiar penintsula osoan daudenak bezala, badakigu horrelako egiturak k.a. 3.000 eta 4.000 urte artean erabili zirela. Hilobi kolektiboak dira, familia edo klan bateko kide bakoitza hiltzean irekitzen zena, bertan ehorzteko. Badakigu ez dela

azken momentuko trikuharri txikia. Egitura normalekoa da; tumulua osatzen duten harriak forma kontzentrikoan jarrita daude, 10 bat metroko diametroan, eta ganbara 1,5 metro luze eta 1 metro zabalekoa da».

Aurreneko begiratu eman da, aurrerago beste hitzordu bat ere jarriko dute, indusketa egiteko. «Hezur asko egon liteke horrelako lekuetan, baina ez dira erraz kontserbatzen. Hezurrik ez dela egongo badakigu, baina egon liteke material minerala; zeramika edo suharri zatiak».

Ereñotzuarrei, eskerrak Aurreneko garbiketa saiora ereñotzuar asko gerturatu zirela eta, eskerrak eman ditu Tapiak, eta hurrengo saiorako ere laguntza izatea espero du.

Era berean, Aranzadiko kide Iñaki Sanz Azkue biologo hernaniarrak argitu du nola jarri dioten izena aurkikuntzari. «Akola baserriko Joxe Susperregiri galdetu diogu ea eremuak zein izen duen, eta Ereñotzuko toponimiari buruzko lanetan ere begiratu dugu. Putzuzarko trikuharria izango du izena». ■

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

MESAS Y SILLAS
MAIER
 ERROSPE, S.L.

HOSTALARITZA
 Jatetxeak
 Elkarateak
 Sagardotegiak

ETXEA
 Aulkiak
 Sukalde eta jangelako mahaiaik
 Aparadoreak
 Txokorako altzariak

943 833 506
605 71 92 79
MAIER@EUSKALNET.NET

NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
 Santio Erreka Auzoa, 45 - ORIO-AIA

IRUBIDE JATETXEA
 Zure jatetxea. Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

TALLERES JUANTXO
 Juan Ignacio Rodríguez

- ▼ Diagnosi unibertsala
- ▼ Neumatikoetan aukera zabala
- ▼ Aire egokituaren karga eta konponketa
- ▼ Suspentsioak, Balaztak
- ▼ Olio aldaketak. Mekanika orokorra

ESKAINZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:
 09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00
 Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 tallerjuantxo@gmail.com